

Baliabide klabeak:

Produktuaren baliabide klabeek dagokienez, produktua osatzen duten baliabide garrantzitsuenak osatzen dute. Gure kasuan, aukeratu ditugun osagaiak, kontsumo erregulatu baten aurrean, osasunean kalterik sortzen ez dutenak dira.

1. Gari osoko irina (integrala)

Gari osoko irinak gailerei zuntz ugari, mantenugai gehiago eta testura biribilagoa ematen die. Osagai honek balio nutrizional handia bermatzen du, ohiko irin zurituak baino aberatsagoa baita bitaminetan, mineralean eta energia iraunkorrean. Horregatik, funtsezkoa da Mara2llaren produktuaren osasungarritasun eta naturaltasun irudia indartzeko.

2. Almendrak

Almendra ehoak edo zatitxoak gaileten proteina, gantz osasungarri eta zapore aberatsaren iturri dira. Almendrak erabiltzeak testura leun eta guria lortzen laguntzen du, eta aldi berean produktuari premium eta nutritibo izaera ematen dio. Gainera, almendraren gantz osasungarriak bihotz-osasunerako onuragarriak direnez, marka osasuntsuaren posizionamenduarekin bat egiten dute.

3. Chia haziak

Chia haziak superelikagai moduan ezagunak dira, eta Mara2llaren produktuei zuntz gehiago, omega-3 gantz azidoak eta antioxidatzaileak gehitzen dizkiete. Gaileten testura hobetzen dute eta digestio ona sustatzen dute. Egitura eta nutrizio ekarpen biak ematen dituztenez, chia haziak produktua diferentziatzeko elementu estrategiko bihurtzen dira.

4. Laktosarik gabeko limoi kremak

Limoi kremak espezialtasun eta freskotasun ukitu nabarmena ematen du, eta laktosarik ez edukitzeak kontsumitzaile gehiagorengana iristea ahalbidetzen du. Crema honek gozotasun eta azidotasun orekatua, testura arina eta intolerantzia dituztenentzat egokitutako formulazioa uztartzen ditu. Horri esker, Mara2llak gama zabala ase dezake, inklusibitatea eta zapore bereizgarria konbinatuz.

